

guk
LABekin
bat



apuesta por el cambio

iparheg^oa
IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA



LAB, GURE SINDIKATUA

LAB militantziaren konpromisoarekin eta euskal langileen babesarekin eraiki dugun sindikatua da. Ez digu inork ezer oparitu, gure ahaleginez eta izerdiz sortu dugu gaur ezagutzen dugun sindikatua. Borroka zehatz eta orokorren bidez eraiki dugu sindikatua; borrokak egin du LAB.

1974ko udazkenean sortu ginen Hego Euskal Herrian eta 2000 urtean saretu ginen Ipar Euskal Herrian. Antolaketa nazionala posible egiten duen sindikatua da LAB. Euskal Herriko langile guztiei antolatzeko aukera ematea da gure helburua eta gure sindikatuaren funtsa.

Ordezkaritza zabala dugu eta asko gara: 45.000 afiliatuk eta 4.200 delegatuk osatzen dugu LAB. Eta gero eta gehiago gara. Sorreratik gaurdaino etenik gabe sendotzen eta saretzen joan gara. Hauteskunde prozesuetan zehar gure ordezkariak zabaltzen joan da eta, gaur gaurkoz, langileen artean babes eta atxikimendu handia dugula esan dezakegu.

LABeko kideek lekuz leku eta eremuz eremu egiten duten ordezkariak da gure oinarria eta gure ardatza. Guk ez dugu zalantzarik. Honekin batera, gure sindikatuaren proposamena lau ardatzen gainean eraikitzen dugu: Gure kideen **ordezkariak**, gure **proiektu integrala**, gure **eredu sindikala** eta guztion artean garatzen dugun **estrategia sindikala**.

GURE PROIEKTUA, PROIEKTU INTEGRALA.

Sindikatu Independentista eta Sozialista gara. Independentzia da Euskal Estatu Sozialista eratzeko bitartekoak eta baldintzak bermatzen dituen estatus bakarra. Hori da, hain zuzen ere, gure azken helburua, hori da euskal langileei eskaintzen diegun alternatiba estrategikoa. Estatu langilegoaren interesen arabera eraikitzea eta hauen parte-hartze zuzenaren bidez antolatzea da klase ikuspegitik bideratu nahi dugun ekarpena. Ekonomiaren kontrol politiko eta soziala, aberastasunaren zein lanaren banaketa eta sektore publikoa ekonomiaren motorra izatea defendatzen dugu.

Sindikatu abertzalea gara. Euskal Herria eraiki nahi dugu, langileekin eskuz esku egin nahi dugu eta Euskal Herria, langileon herria izatea da gure helburua. Euskal Herria nazioa dela ukatuz lapurtu digute euskal langileoi gure herriaren orainaz eta etorkizunaz erabakitzeko eskubidea. Eta gu horren aurrean alternatibak eskaintzeko jaio ginen. Gure klase interesak defendatu eta bermatzeko askapen nazionalaren alde borrokatzea beharrezkoa dela uste dugulako jaio zen LAB. Eskuineko abertzaletasunak zein ezker estatalistarekin ezinezkoak ziren langilegoaren klase interesak eta euskal identitatearen inguruko proposamen zehatzak jasoko zituen estrategia sindikala bideratzeko jaio zen LAB.

Klase sindikatua gara, soziopolitiko eta kontraboterekoa. Interes korporatibo edo partikularren gainetik, herri proiektu baten aldeko eraldaketa bultzatzeko tresna da LAB. Aldaketarako tresna gara, aldaketen eragile izan nahi dugu. Horretan datza gure funtzioa eta horrek zuzentzen du gure jarduera. Hego nahiz Ipar Euskal Herriko borroka nagusietan partaide gara, izan politikoak, izan sozialak. Botere ekonomikoari gure orainaz eta etorkizunaz erabakitzeko aukera kentzeko borrokatzea da gure iparrorratza. Euskal Herriak behar duen kontraboterea Herria bera da. Botere berriak antolatzeko langileen tresna izatea da gure asmoa eta gure helburua; kontrabotere sindikalismoa egiten dugu horretarako.

Sindikatu **feminista, euskalduna, internazionalista** eta **ekologista** gara. Generoaren araberako zapalkuntza oro borrokatzen dugu, egungo jendarte patriarkalak ezartzen dituen sexuen arteko harreman botereak gainditu eta pertsona oroaren eskubideen berdintasuna lortzea dugu helburu. Sindikatu euskalduna gara, euskararen normalizazioarekiko konpromiso politiko eta sindikal erabatekoaz dihardugu, euskara hizkuntza nazional gisa normalizatze bidean, bereziki lan munduan, prozesu partizipatiboa sustatuz. Internazionalistak gara, lan eta bizi baldintzak aldatzeko borrokan diren munduko langile guztiekin solidarioa da LAB, eta elkartasun internazionalistak saretutako harreman estuak ditugu esplotazio eta zapalkuntza orori aurre eginez, inperialismoaren aurka eta herrien burujabetzaren alde borrokan diharduten munduko beste sindikatu eta eragileekin. Ekologistak gara, garapen kapitalista suntsitzailea eta porlanaren logika baliabide natural guztiak agortzen ari direlako. Horren aurrean, gure helburua garapen orekatua lortzea, ekosistema berreskuratzea eta pertsona guztion bizi kalitatea bermatzea da.

GURE EREDUA, EREDU SINDIKAL SENDOA

Sindikatu konfederala gara, ekonomiaren sektore guztietan jarduten duena; eskualdez eskualde antolatzen gara herrietan esku hartzeko. Borroka sektorialak estrategia orokor baten baitan kokatzen ditugu. LAB ez da sindikatu ezberdinen batuketa bat. Gure eredu sindikala tokian toki eta eremuz eremu egokitzen dugu, errealitatea aztertuz eta borrokarako baldintzak ongi baloratuz. LAB bat eta bakarra da; izan industrian, izan sektore publikoan edo zerbitzu pribatuetan.

Konfrontazio sindikalismoa egiten dugu. Ez diogu uko egiten eztabaida eta elkarriketari, beti ere langileen interesen defentsan bada. Ordea, uko egiten diogu patrola edota gobernu ezberdinen aurpegia zurrizko baino balio ez duen elkarriketa ereduari. Horregatik, gaizki deituriko "elkarriketa sozialean" oinarrituriko sindikalismoaren aurrean, kontrabotere eta konfrontazio sindikalismoaren beharra defendatzen dugu.

Eskualdez eskualde antolatzen gara. Lantokiak dira gure borroka eremu garrantzitsuenak, baina ez bakarrak. Lan mundua aldatzeko borroka sindikala lantokietan eta lantokietatik kanpo egin behar dugu. Langile guztien tresna izateko ezin gara langile landunak dauden eremuak antolatzera mugatu. Politikak aldatzeko mobilizatu egin behar gara, kalean, eragile sozial eta sektore kaltetuekin batera. Lantokietan sendoa eta herrietan ongi errotua, horrelakoa nahi dugu LAB izatea.

Militantzia da gure ikur nagusia. LABen sindikalismoa ulertzeko eta egiteko modua azaltzen duen gakoa militantzia da, langileak antolatzeko eta borroka dinamizatzeko gaitasuna duen gure militantzia. Gure kidegoaren konpromisoan eta jardueran dago sindikatuaren indarra, hasi enpresatik eta zuzendaritza guneetaraino. Eta noski, gure gabeziekin eta zailtasunekin ere egiten dugu LAB, guztion artean eta egunetik egunera.

Errealitate ezberdinen aurrean proposamenak egiten dituen eredu garatzen dugu. Zentzu honetan, ekintza sindikala egoera berrietara moldatzeko proposamen zehatz eta orokorrak egiten ditugu. Aitzindariak izan gara agenda sindikala berritzen eta osatzen, euskalduntze planak zehaztuz eta garatuz, aukera berdintasunerako barne zein kanpo planak garatuz. Zentzu honetan, dimentsio sozial guztiek ordezkari izan dezaten parekidetasuna eta gazteria bezalakoak zehar-lerro moduan lantzen ditugu.

Garai berrietara moldatzen den eredu da gurea. Guk badakigu langileon egoera ez dela estatikoa. Badakigu langileriaren errealitatea ez dela homoginoa. Badakigu langileak garela aldaketarako subjektuak, baina langile guztion errealitatea ez dela berdina. Azken bi hamarkadetan politika neoliberalaren eta krisi egoeraren ondorioz, errealitate sozial ezberdinak sortu dira. Langabeziak inoiz ez bezala egin du gora langabeen kopurua izugarri handiturik. Babes sozialik gabe bizi den pertsona gero eta gehiago dago. Lan prekarioaren eraginez, bizi baldintza ezegonkorrak dituzten sektoreen handitzea agerikoa da. Pobrezia eta bazterkeriaren ondorioz herrialde ezberdinen arteko muga modu ilegalean pasatzen duten milaka pertsonen egoera geroz eta larriagoa da eta gure jendartean geroz eta eragin handiagoa dauka. Horregatik, egoera errotik aldatu eta alternatiba sozioekonomiko berri baten bidean, badakigu sindikalismoak errealitate horiek guztiak ordezkatzeko praktika eta bide zehatzak jorratu behar dituela. Egoera ezberdinei aurre egingo dien eredu sindikala da gauzak aldatu ditzakeen bakarra.

GURE BIDEA, LANGILEON BIDEA

Burujabetza. Euskal Herriak bere bidea egitea da LABen estrategiaren motibaziorik behinena. Ezinezkoa ikusten dugu botere ekonomikoaren aginduei men eginez langileriaren egoerari buelta ematea; alternatiba gure kabuz eta gure ekimenez eraikitzea lortu behar dugu. Madril eta Parisen hartzen diren erabakiak betetzea hondamendia izaten ari da, bai langileentzat, baita Euskal Herriaren ekonomiarentzat ere.

Eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzeko helburua duen burujabetza prozesu bat burutzea da euskal langileon alternatiba. Hori da LABek aldarrikatzen duena eta LABetik borrokatzen duguna. Eredu berria bide baten emaitza izango delarik, bide hori egiteko aukerak eta bitartekoak eskaini behar dizkigu prozesu soberanistak.

Aldaketa politiko eta sozialak. LABen nortasun ikurra izan da aldaketa sozialak aldaketa politikoekin batera borrokatzea. Aldaketa politikorik gabe bestelako eredu sozial bat sortzerik ez dago. Aldaketa sozialak egiteko premia da aldaketa politikoen alde borrokatzeko arrazoi nagusia guretzat. Bata eta bestea lotuak daude, gaur inoiz baino gehiago.

Badira euskal sindikalismotik borrokatu behar ditugun derrigorrezko aldaketak: gure

oraina eta etorkizuna nolakoa izatea nahi dugun erabakitzeko eskubidea eskuratzea; gure bidea egiteko bitarteko juridiko, politiko eta sozialak eraiki ahal izatea; politika propioak egiteko aukera ziurtatzea; estatuei gure baliabide ekonomikoak antolatzen ahalmena kentzea; langileen parte hartzea benetakoa egingo duen eredu instituzional berria ezartzea edota ekonomia herriaren zerbitzura jartzeko egiturazko erabakiak hartzea... Guztiak aldatuta politikoak dira.

Langileriaren protagonismoa. Kateak apurtzean dago giltza. Ukatzen eta zatitzen gaituzten Estatuekin dugun lotura inposatua apurtu nahi dugu. Botere ekonomikoaren eskutan utzi gaituzten Gobernuari bizkarra eman behar diegu neoliberalismoaren logikarekin apurtzeko. Jendartea aldatu nahi dugu, eta hori bide luze baten emaitza izango da. Egunero urratsez urrats egiten goazen bide luze baten emaitza. Gaurko egoerari buelta ematea posible da, alternatiba guztiz bideragarria delako. Krisiaren aurrean zer egin nork erabakitzen duen da auzia.

Euskal langileriak erabakiz gero gauzak aldatu egingo dira. Hartu beharreko erabakien protagonista langileria balitz erabaki ezberdinak izango liritezke. Ez dugu langileetat hitz egitea nahi, euskal langileoi hitza ematea da eskatzen duguna, hor baitago alternatibaren abiapuntua. Sindikatuon borroka nagusia patronalaren asmoei aurre egitea da. Borroka sindikal eta soziala indartu behar dugu instituzioek politikak behin-goz aldatu ditzaten. Indarrak bildu behar ditugu alternatiba argi eta sendo baten inguruan. Aliantzak eraiki behar ditugu botere ekonomikoaren aurrean harresia eraikitzeko.

Sindikatuok borroka horiek guztiak antolatu eta bultzatu behar ditugu. Borroka ematen digun indarra aldatu lortzeko inizatibetara bideratu behar dugu. Hori da sindikatuon papera. Beti ere, gure borrokaren oinarria argi dugula: borrokatzen duena eta borrokatuko duena langileria da. Langileak izan behar gara protagonistak, Euskal Herriari dagokionean hartu beharreko erabakietan, alternatiba ekonomiko eta sozialak eraikitzerakoan, baita sindikatuaren bidean ere.

ALDAKETEN GARAIAN GAUDE. NORA GOAZ?

Krisia baliatzen ari dira erreforma kapitalistarak basatiena inposatzeko. Arazoa ez da ekonomikoa, eskubideak suntsitzea eta miseria zabaltzea erabaki politikoa da. Finantza krisiaren ondorioz egoera ekonomikoa hankaz gora jarri zen 2008an. Orduz geroztik gauzak asko aldatu dira eremu guztietan. Langabezia maila historikotan dago, babes soziala inoiz baino txikiagoa da, pobrezia neurririk gabe zabaldu da eta garai batekoak ziren egoera larriak berriro ari dira hedatzen gure artera.

Nutrizio arazo larriak dituzten umeak, sendagaiak hartu ezinik bizi diren pentsiodunak, muturreko pobrezia bizi duten emakumeak, osasun txartelik gabeko etorkinak eta inolako prestaziorik ez duten milaka langile. Muturreko egoerak dira hauek guztiak eta ez da egia krisiak langile guztiok berdin jipoitu gaituenik. Krisiak bi errealitate inposatu dizkigu: batetik, egoera hauetara iristeko arriskua orokorra da eta kolektibo guztietara zabaldu da. Bigarren errealitatea, egoera hauek ez direla momentukoak, berriz ere elite ekonomikoaren mesedetan izango den hazkunde ekonomiko garai berri bati ekiteko egin dituzten politiken ondorio dira. Bilatzen duten hazkundeak miseriara kondentzen gaitu. Hori da inposatu nahi diguten etorkizuna.

Nora goaz? Galdetzen diogu geure buruari. Zoritxarrez, nora garamatzaten da galdera zuzena. Gauzak aldatu dira baina beti bezala, oinarriak bere horretan mantendurik. Krisia sortu zuten berberak ari dira krisia kudeatzen, eta euren interesen mesedetan egiten dute. Hau da LABek egoeraz egiten duen irakurketa.

Emergentzia sozial egoera bizi dugu eta egoera honetara ekarri gaituzten politika ekonomiko eta sozialak egiten jarraitzea Euskal Herriaren suizidio politiko eta ekonomikoa da. Bost urte luze dira murrizketak eta erreformak hasi zituztenetik eta ondorioak bistakoak dira: aberats batzuen mesedetan ekonomia erreala suntsitzen eta herria miseriara kondentzen ari dira. Agenda neoliberal oso bat inposatu digute eta bere ondorio sozialak ikaragarriak dira.

Azken lau urteetan behin eta berriz errepikatu diguten hobekuntza ekonomikoaren atarian gaudela. Baina 2014an gaude jada eta 225.000 baino langabetu gehiago

daude egun Euskal Herrian. Langabezia tasa %20ra gerturatu ari da, 2008an %6an zegoenean. Enplegua suntsitzen duten neurriak hartzen dituzte eta babes soziala murriztu dute. Langabezia egiturazkoa bilakatzen ari da eta langabetu gehienak presztaziorik eta benetako laguntzarik gabe geratzen ari dira.

Krisia enplegu egonkorra suntsitzeko eta guztiz prekariora den enpleguaz ordezkatze-ko erabili dute. Langabezian, pobrezian erortzeko arriskua erabatekoa da, eta lan munduan gaurko baldintzetan sartzeko aukerak ez gaitu arrisku horretatik aldentzen. Enplegua duten 10 langiletik 2 pobreziaren mugatik behera bizi dira eta 10 langiletik 4 (lana izan ala ez) pobreak dira.

Pentsio erreformei berrordainketa bezalako neurriak gehitu zaizkie, eta ondorioak berehalakoak izan dira. Bi urteren bueltan pentsiodunen %30ak tratamenduak hartze-ari utzi dio. Hileko batz besteko pentsioa 876 eurokoa da Euskal Herrian, alargunak ez dira kasu gehienetan horretara iristen, pobrezia egoeran bizi dira erdia inguru.

Arazo politikoa da, ez ekonomikoa. Euskal Herrian badago bitarteko ekonomiko nahikoa guztion bizi baldintzak ziurtatzeko. Guztiok daukagu bizi proiektu duin bate-
rako eskubidea eta badago aberastasun nahikoa hori posible egiteko. Aberastasuna geroz eta okerrago banatzen da, ordea. Auzia guztiz politikoa da, erabaki politikoen ondorioz langileok ari gara ordaintzen espekulatazaileek sortu duten krisia. Herria pobrezia kondonatzea aberats batzuk oraindik eta gehiago aberasteko hautu politi-ko bat da.

Gobernuek erabaki zezaketen langileekin lerratzea, herria krisiaren ondorioetatik babestea. Arduradun politikoei zegokien krisiaren jatorriari begiratzea eta arazoa zuzentzeko erabaki politikoak hartzea, baina kontrakoa egin dute. Gezurra da derrigortuak zeudenik banketxeak diru publikoaz languntzera edo pentsio sistema publi-koa murriztera. Bestelako aukerak bazeuden eta ondorioak nolakoak izango ziren jakinda erabaki zuten botere ekonomikoaren txotxongiloak izatea.

Erreforma bat bestearen atzetik, guztiak langileen kontrakoak. Krisia baliatzen ari dira erreforma kapitalista oso bat burutzeko, kapitalismorik basatiena inposatzeko. Gezurra da erreforma hauek egitea derrigorrezkoa denik, betidanik egin nahi izan dituzte eta krisia baliatzen dute aitzakiatzat.

Pentsio erreformaren helburua sistema pribatua zabaltzea da, lehen etxebizitza eskubidea bihurtu zuten diru iturri oparoa; orain pentsio eskubidearekin egingo dute negozioa. Prestazio eta zerbitzu publiko guztiak murriztu dituzte, kasu batzuetan babesik gabe uzteko herritarrak, eta gainontzeko kasu gehienetan ekimen pribatuari eremu zabalak oparitzeko. Zenbat eta eskasagoa izan osasun zerbitzu publikoak eskaintzen duena, orduan eta aukera gehiago ahal duenak zerbitzu pribatuetara jozteko. Gezurra da egoera hau krisiak ekarri duenik, neoliberalismoa aspaldiko asma-kuntza da, krisiarekin azkartu eta sakondu egin dena publikoa den oro suntsitzeko.

Lan munduari dagokionean, gezurra da gure lan baldintzak arazo bat zirenik. Krisia finantza sistematan sortu zen, ez enpresa produktiboetan. Krisia espekulazioaren ondorio izan zen, gure lan eskubideek ez zuten zerikusirik izan. Bi lan erreforma inposatu dizkigute kaleratzeak erraztu eta merkatzeko, lan eskubideak deuseztu eta soldatak murrizteko eta negoziazio kolektiboa suntsitzeko.

Lan erreforma bitarteko paregabea da negoziazio kolektiborako eskubidea ezereztu, lan harremanak desarautu, enplegua suntsitu, soldatak murriztu eta pobrezia areagotzeko. Lehiakortasunaren izenean lan kostuak murriztu eta patronalaren irabaziak bermatzeko tresna legala da erreforma.

Negoziatio kolektiboa da gure defentsa tresna garrantzitsua eta enpresarien aspaldiko ametsa zen hitzarmenak ez betetzeko aukera euren eskutan edukitzea. Hitzarmenak deuseztatzea eskatu zuten, berriak negoziatzeko, langileontzat askoz ere baldintza okerragoetan eta gure borrokarekin lortutako hobekuntza guztiak atzean utzita. Helburu argia dute: soldatak murriztea, lanaldia luzatzea eta lan baldintzak okertzea. Horiek guztiak onartzen baditugu, hitzarmenak edukiko ditugu, baina bien bitartean negoziatioak blokeatu eta legez baliatuko dira beren asmoak nagusitzeko. 2013 amaieran EAeko langileen %60,3 (ia 350.000 langile) hitzarmena berriro gabe zeuden. Nafarroan hitzarmen gehienak sinatuak daude eta EAEn baino gehiago erori dira soldatak. Soldata izozketak edota igoera apalak onartzeak eta lan erreformaren ondorioei aurre egiteko klausularik gabe sinaturiko hitzarmenek, patronalaren neurrira egindakoek, ez dute egoera konpontzen.

Inboluzio egoeran gaude. Krisiak ekarri duen aldaketa sokaren atzean inboluzioa baino ez dago. Eredu sozialari dagokionez, eskubiderik gabeko eredu batera gara-

matzate. Hori ez da ezer berria. Hori da aitzina zegoen eredu, eskubide sozialak aitortu ziren arte. Zein aurrerapauso dago pentsio eskubiderik gabeko eredu batean? Nola izango da berria eredu bat non ez dagoen negoziazio kolektiborik eta enpresaria den gure lan baldintzak bere kasa erabakitzen dituen?

Eredu politikoari dagokionez ere badugu zer esan. Uda sasoi bete-betean, 15 egunetan aldatu zuten Konstituzio espainiarra, zor publikoaren ordainketa eskubide sozialen gainetik jartzeko. Ez da edonolako aldaketa. Derrigorrezkoa da banketxeen interesak herriaren premiaren gainetik jartzea. Politikak gune ekonomikoetan eta patronalaren bulegoetan erabakitzen dira, eta gobernuek aginduak betetzen dituzte. Ez da onartzen inolako parte hartzerik herriaren aldetik eta botere guneak geroz eta gehiago urruntzen dituzte.

Inboluzioa eredu sozialean, inboluzioa eredu politikoan eta inboluzioa Euskal Herriaren erabakitzeko ahalmenean. Krisi honek Herri erabakiak hartzea eskatzen du, baina Troikaren aginduetara, Madril eta Paris dira erabakiak hartzen ari direnak. Arazo bikoitza dugu, Euskal Herriaren interesak eta premiak erabakietatik kanpo geratzen dira eta hartzen diren erabakiak baldintzatzeko gaitasuna lapurtu egiten digute. Elite ekonomikoari mesede egiten dion joko zelaian jokatzera behartzen gaituzte eta horrela eurek dira partidan beti aurretik doazenak.

Politika ekonomiko eta sozialak hemen erabakitzeko eskubidea oinarri-oinarrizko eskubidea da egoera aldatzeko. Horrela aldarrikatu dugu azken 20 urteetan. Esparru propioaren eraikuntza gure estrategiaren ardatza izatea erabaki genuen. Krisiak inoiz baino beharrezkoagoa egin du aldarri hori politikaren lehen mailan jartzea eta borroka sindikalaren ikur bilakatzea. EAEko eta Nafarroako Gobernuek, ordea, uko egin diote politika propioak egiteari, alboratu egin dute erabakiak bertan hartzeko eskakizuna Madrilen aurrean borrokatzea, eta 1978ko iruzurra gaurko egoerara ekarri dute. Erabakitzeko eskubidearen inguruan krisia gainditzean hitz egingo omen dugu, eta bien bitartean eurek dira erabakiak hartzen dituztenak, Kutxabank espekulatzailleen esku utziz, besteak beste.

Eredu ekonomiko eta sozial berria behar dugu. Eta posible da. Eredu berri bat erakitzea da krisi honi kontrajarri ahal zaion alternatiba bakarra. Hori da euskal langileok egin behar dugun hautua eta mobilizazioaren zein proposamen ezberdinen bidez

Euskal Herrian nagusitu behar dugun bidea. Gure etorkizuna dago jokoan eta hori da gure borrokaren ardatza.

Ez ditugu atzean utzitako garaiak berreskuratu nahi. Ez ginen hazkunde garaiarekin konforme, behin eta berriro kritikatu eta salatu genuen aberastasuna sortzen zela, baina ez zela behar bezala banatzen. Askotan esan izan dugu inolako kontrolik gabe espekulatzen zela eta hori krisi sakonen iturria izango zela. Hala izan da. Eta ez dugu hura berreskuratzea eskatzen. Eredu sozial berri bat aldarrikatzen dugu eta eredu berria eraikitzeko bidea egin nahi dugu.

Gutziz agorturik dagoen eredu politiko eta sozioekonomikotik eredu berri baterako bidea egin behar dugu. Euskal Herria bidegurutzean dago eta erabakiak hartzeko unea da. Zeintzuk dira Euskal Herriaren etorkizuna ziurtatuko duten eredu ekonomikoaren zutoinak? Nola eraikiko ditugu? Nolakoa da aldarrikatzen dugun eredu sozial berria? Zeintzuk dira bertoko instituzioek bereganatu behar dituzten konpromiso sozialak?

Gobernuek krisiaren inguruko eztabaida ukatu ziguten, hasiera hasieratik. Hori izan da krisi honetan egin zitzaigun aurreneko iruzurra. Baina eztabadaitzea eta erabakiak hartzea gure esku dago. Nora garamatzaten galdetzeari utzi eta nora goazen galderari erantzun sendoak aurkitzea da gure bidea.

EUSKAL LANGILEOK GEURE BIDEA

Egoerari buelta ematea posible da. Bide oso baten emaitza izango da eta pausoak egitea gure esku dago. Sortu ginenetik gaurdaino etengabe lanean dihardugu, gure kabuz bizitzeko eta gure bizitzaren jabe izateko. Gai izan gara herri honetan egoera berriak sortu eta aurrera egiteko.

Euskal Herria bere buruaren jabe egiteko garaia dugu. Burujabetzaren bideak, gaur, bizi dugun krisi egoera bortitz honen aurrean, inoiz baino balio gehiago du. Eredu ekonomiko berria eraikitze eskuak libre behar ditugu, eta beraz, kateak askatu behar ditugu, bai Espainiatik, bai Frantziatik. Estatuak euren bidea ezarri digute, betiko errezeta bera darabilte: zentralizazioa, uniformizazioa eta inboluzioa.

Urratsez urrats ari gara askapenaren bidea egiten. Aro berria dugu aurrean: gaurko egoera antidemokratikoa irauli behar dugu euskal herritarrok, Euskal Herria eraikitze-ko, herriarena den hitza herriari emanez, herriak erabaki dezan.

Aro berriari ekiteko sakoneko erabaki politikoak hartu ditugu. Egoera politikoa aldatu egin da Euskal Herrian, baldintza berriak sortu dira indarrak biltzeko, konpromisoak berritzeko, aliantzak eraikitze eskuak eragileok artean. Hor dago giltza.

Gure esku dago alternatiba eraikitzea eta gure bidea egiteko erabakiak hartzea. Euskal sindikatuok krisiari ikuspegi eta agenda propioaz aurre egitea erabaki genuen 2008an. European egin zen lehen greba orokorra antolatu genuen. Konponbidea sistema aldatzea zela aldarrikatu genuen orduan eta aldarrikapen horri eusten diogu. Bidea egiten hasi ginen: uko egin genion gobernuetatik ezarritakoa babesteari, langile borroka indartu behar zen, agenda propioa finkatu genuen. Gure bidea egitea erabaki genuen. Hor dago alternatiba: Euskal Herriak bere bidea egitea, eremu guztietatik, eta guztion indarrak batuz, Euskal Herri berri baten eraikuntzan. Indarra eta prestasuna badagoela erakutsi digute langileek urteotan guztietan.

Urratsez urrats, aurrera. Gatazkaren konponbide demokratikoan buru-belarri inplikatu gara. Gernikako akordioa izenpetu genuen, Aieteko ibilbide orriarekin bat egiten

dugu, gatazka konpontzeko herriaren aktibazioan sinesten dugu eta konpromisoak geureganatzeko prest gaude. Prozesuak aurrera egingo du herriak eta eragileok elikatzen, gorpuzten eta indartzen dugun bitartean.

Euskal demokrazia eraikiko dugu, nazio eskubideen aitortza eta errespetutik, eta autode-terminazio eskubidea baliatzeko aukera ziurtatuz. Euskal Herrian bizitza politiko eta sozia- la demokratizatu beharra dago horretarako. Eta hemen jarri nahi dugu arreta: ez dago demokraziarik pobrezia zabaltzen duen ereduaren gainean, herriari bizkar emanez.

Eredu berria nahi dugu, instituzioak herriaren zerbitzura egotea ekarri eta ziurtatuko duena. Nola egiten da hori? Berton erabakiz. Hitza eta erabakia Euskal Herriarenak eginez. Herritarren borondatea erabakigarri egingo duen parte hartze instituzionale- rako eredu berria garatuz. Gai ekonomiko, sozial eta laboraletan erabakitzeke gaita- suna gauzatuz, Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eraikiz.

Badira aukerak, ekiteko moduak, herritarren borondatea erabakigarri izateko: herri galdeketak arautzea, alde sozialarekin akordioak derrigorrezkoak izatea langileriari zuzenean eragiten dieten gaitetan... Lan Mundua demokratizatuko duen harreman eredu berri bat, finean.

Krisiari irtenbide propioa emanez. Krisiari irtenbide propioa eman behar diogu, ber- toko eragileen artean eta herritarren parte hartzeaz. Irtenbidea eraikitzeke gakoak ere baditugu: lan mundua berrantolatzea, eredu ekonomikoa eraberritzea sektore publi- koaren ekimenez eta garapen eredu berria finkatzea.

Eta bide hori egiteke oinarrizko eskubideak bermatuak izan behar dira. Pobreziarik gabeko Euskal Herria dugu helburu. Oinarrizko beharriak ziurtatu behar dira herri- tar guztientzat: oinarrizko zerbitzu publikoak, prestazio sozialak eta duin bizitzeko bitartekoak (etxebizitza) ziurtatzea instituzioen betebeharra da, egoera edozein izanik ere, ziurtatu beharrekoa.

Eskubideak suntsituz bidea egiterik ez dago. Bidea egingo badugu, eta egin behar dugu, egin beharreko urratsak hauek ditugu: pentsio erreformaren ondorioak gain- ditzeko pentsioak osatzea, Lan Erreforma alboratzea, hitzarmenak errespetatzea, negoziazio kolektiborako langileon eskubidea ziurtatzea, hezkuntza eta osasun esku-

bideak herritar guztiengana heltzea, langabetuak babestea, enplegu duina sortzea eta etxebizitza izateko aukera bermatzea. Esan beharrik ez da, emakumeek, gazteek, etorkinek... aukera berdinak izango dituztela ziurtatuz.

Akordio sozial zabalak eraikitzen ari gara. Konponbideak erdiesteko politika ekonomiko eta soziala erabakitzeko eta ezartzeko ahalmena botere ekonomikoen esku egotearekin amaitu egin behar da. Gauzak aldatuko ditugu eredu berriaren inguruko adostasunak lortuz. Akordioak eraikitzeko gaitasuna izan behar du Euskal Herriak eta hori euskal eragileon esku dago. LAB prest dago.

Lan eskubideak eta eskubide sozialak botere ekonomikoaren aurrean defendatzeko egiten dugu lan. Borroka sindikala egiten du LABek lantokietan, lanpostuen suntsiketaren aurka, enplegu duinaren defentsan, hitzarmenak errespetatzeko eta hobetzeko.

Etengabe mobilizatzen gara, gure agenda propioarekin, agenda neoliberalari aurre egiteko. Eragile sozial eta sindikalak biltzen dituen Gunearen bidez batu ditugu indarrak, eta esperientzia emankorra ari da izaten eremu sozial eta sindikalaren arteko elkarlana mamitzeko, errotzeko eta indartzeko. Krisiaren aurrean instituzioek alboratu duten harresi lana herritarrok geureganatu dugu.

Politikak aldatu behar dira eta horretarako akordioak beharrezkoak dira. Baina egun egiten diren politiken aldeko akordio sozialik ez du babestuko LABek. Aldaketa bide horretan konpromisoak hartzeko prest gaude, proposamenak eta eskaintzak egin dizkiegu gobernuei, politika berriak eta desberdinak egiteko prest dauden instituzioekin elkarlana bultzatuko dugu inolako konplexurik gabe. Baina ez dugu antzerki hutsak diren mahaietan parte hartuko.

Eredu sozial berriaren eraikuntzan aurrera egiten ari gara. Akordio sozial zabalak eta aliantza sendoak sortzen ari gara. Eremu horretan urrats berria eta garrantzitsua egin dugu: Eskubide Sozialen Karta. Herritarren ekimenez sortu dugun tresna, erantzutetik eraikitzen jautzia egiteko.

Aliantza sendoen aldeko apustua egiten dugu. Gure orainaz eta etorkizunaz erabakitzeko eskubidea berreskuratu behar dugu. Horrek gehiengo sozial zabal bat eskatzen du, erabakiak baldintzatuko dituena, langileen protagonismotik. Alternatiba

nagusi izan dadin aliantzak nagusitu behar dira. Aliantza sendoa sindikalismo abertzalean, lan mundua aldatu eta eredu berria langileen ekimenez eraikitzeko; aliantza zabala eragile sozialekin, eskuz esku lan eginez herri eta auzoetan borroka sozialak indartzeko; eta aliantza indartsua eremu politikoarekin, eremu guztietatik ekin behar diogulako gauzak aldatzeko eginahalari, eremu desberdinen artean adostuz egin beharreko bidea, bakoitzari zor zaion errespetutik, norberak bere eremutik eraginez.

LAB, KONPONBIDEAK BORROKATZEKO TRESNA

LABen antolatuz borrokatzea da Euskal Herriko langileei luzatzen dizuegun proposamena. Gu ez gara konponbidea. Gure erantzukizuna langileriak behar duen alternatiba eraikitzeke tresna eraginkorra izatea da. Zure borroka tresna izatea da gure helburua.

Gu ziur gaude egoera irauli dezakegula langileok batzen bagara eta borroka antolatzen badugu. Hauek dira LABen borroka nagusiak, zuekin batera indartu eta zabaldu nahi ditugunak.

• Euskal Herriak bere bidea. Krisitik ateratzeko bide bakarra.

Lanaren eta aberastasunaren banaketa ditugu helburu. Honekin batera, pertsona guztientzako eskubideen errespetua bermatzeko lan eta borroka egiten dugu. Norabide honetan ondorengo lerroen arabera antolatzen dugu gure jarduera:

- Enplegua babesteko, sortzeko eta hobetzeko estrategiak.
- Zerbitzu publikoak ziurtatzeko dinamika zehatzak.
- Prestazio duinen aldeko borroka.
- Erabaki politikoetan benetako partehartzearen berma.

Alternatiba posible da. Eredu sozial eta ekonomiko berria eraikitzeke bidea egitean dago gakoa, horren bidean ondorengo proposamenetan dihardugu.

- Eskubide Sozialen Karta aintzat hartu eta bete.
- Eredu berria eraikitzeke bitartekoak eskuratu.
- Politika ekonomiko eta sozial berriak egin.
- Lan Harremanen eta Babes Sozialaren eraikuntzarako eredu berria eraiki.

Lan munduaren inguruko erabakiak bertan hartzeko eskubidea eta bitartekoak eskuratu behar ditugula ziur gaudenez, bide horri heltzeko ondorengo ardatzen alde egiten dugu lan eta borroka:

- Negoziatio Kolektiborako eskubidea errespetatu.
- Babes sistema propioa ezarri.
- Eredu instituzional berria eraiki.
- Politika propioak egiteko aukera ziurtatu.

- Partehartze eredu berria ezarri eta errespetatu.

• **Borroka eta mobilizazioa. Aldaketarako giltza.**

Lantokietan egiten dugu borroka.

- Patronalaren aurrean, langileok gure eskubideen defentsan.
- Negoziazio kolektiboan, enpleguaren eta lan baldintzak hobetzearen alde.

Lantokietatik kanpo egiten dugu borroka.

- Mobilizazioa sustatuz, botere ekonomikoari harresia eraikitzeo.
- Borroka soziala aktibatuz, politikak aldarazteko.

• **Aliantza garaia da. Aldaketaren bidea egiteko adostasun sendoak eta konpromiso argiak behar ditugu.**

- Aliantza sindikal eta sozial zabala mobilizazioa indartzeko eta zabaltzeko.
- Aliantza sindikal sendoa patronalari aurre egiteko lan munduan.
- Sindikatu abertzaleon arteko aliantza estrategikoa eredu sozial berria eraikitzea eka-riko duen bidea egiteko.
- Aliantzak eremu politiko eta sozialaren artean, Euskal Herria guztion artean eraikiko dugulako.

• **Gatazka konpontzea. Euskal Herrian bakea eta demokrazia ezagutu nahi ditugu. Helburu hori erdiesteko gure lehentasunak honakoak dira:**

- Presoak etxeratzeko dinamika.
 - Preso gaixoak etxera.
 - Dispersioarekin amaitu, Euskal Presoak Euskal Herrian baturik.
 - Espetxe politika aldatzea konponbideak eraikitzeo tresna izan dadin.
 - Presoen etxeratzeta egiteko bidea adostu.
- Eskubide guztiak guztiontzat.
 - Ilegalazioen eta salbuespen egoeren atzean dagoen Itun Antiterrorista indargabetu.
 - Epaiketa politiko guztiak bertan behera geratzea.
 - Euskal Herria desmilitarizatu.
- Eman hitza Euskal Herriari.
 - Erabakitzeo Eskubidea ziurtatzea eta errespetatzea.
 - Ukazioa eta zatiketa gairditzeko estatus politiko berriak eraikitzea.
 - Gai laboral, sozial eta ekonomikoetan erabakiak hemen hartzen direla ziurtatzea: Lan Harreman eta Babes Sozialaren Euskal Esparrua eraikitzea.